

EUSKADIKO DOKUMENTU ONDAREARI ETA ARTXIBOEN SISTEMARI BURUZKO LEGE PROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Definizioak.
3. artikulua. Aplikazio-eremua.
4. artikulua. Koordinazioa eta lankidetzeta.
5. artikulua. Sustapen-neurriak.

I. TITULUA

Euskadiko dokumentu-ondarea

I. KAPITULUA

Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioaren definizioa eta osaera

6. artikulua. Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioaren definizioa.
7. artikulua. Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioa osatzen duten dokumentuak.

II. KAPITULUA

Titulartasun publikoko dokumentu-ondarea

8. artikulua. Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten titulartasun publikoko dokumentuak.
9. artikulua. Titulartasun publikoko dokumentuen ezaugarriak.
10. artikulua. Titulartasun publikoko dokumentu elektronikoak.
11. artikulua. Titulartasun publikoko dokumentuen titularren betebeharrak.
12. artikulua. Eginkizunak eskualdatzea administrazioen eta kargu publikoen artean.
13. artikulua. Erakunde publikoak pribatizatzea.

III. KAPITULUA

Titulartasun pribatuko dokumentu-ondarea

14. artikulua. Titulartasun pribatuko dokumentuak Euskadiko dokumentu-ondare deklaratzeko.
15. artikulua. Euskadiko dokumentu-ondarearen titular pribatuen betebeharrak.
16. artikulua. Informazioa emateko betebeharra.
17. artikulua. Lehentasunez erosteko eskubidea eta atzera erosteko eskubidea.

IV. KAPITULUA

Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioa eta Artxiboen Errolda

18. artikulua. Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioa.
19. artikulua. Euskadiko Artxiboen Errolda

II. TITULUA

Euskadiko Artxiboen Sistema eta dokumentu-kudeaketa

I. KAPITULUA

Definizioa eta organoak

- 20. artikulua. Euskadiko Artxiboen Sistemaren definizioa.
- 21. artikulua. Organoak.
- 22. artikulua. Euskadiko Artxiboen Sistemaren Zuzendaritza.
- 23. artikulua. Euskadiko Artxiboen Kontseilua
- 24. artikulua. Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordea.
- 25. artikulua. Kudeaketa-organoa.

II. KAPITULUA

Sistemako Artxiboak

- 26. artikulua. Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten artxiboak.
- 27. artikulua. Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten artxiboen titularren betebeharrak.
- 28. artikulua. Dokumentuen kudeaketa.
- 29. artikulua. Dokumentuak ebaluatzea eta hautatzea.

III. KAPITULUA

Euskadiko Artxibo Historikoa

- 30. artikulua. Sorrera.
- 31. artikulua. Eginkizunak.

III. TITULUA

Irispidea

- 32. artikulua. Dokumentuak irispidean izateko eskubidea.
- 33. artikulua. Dokumentuetarako irispidea partziala.

IV. TITULUA

Zehapen-araubidea

I. KAPITULUA

Arau-haustek

- 34. artikulua. Definizioa.
- 35. artikulua. Arau-hauste motak

II. KAPITULUA

Zehapenak

- 36. artikulua. Zehapenak.
- 37. artikulua. Eragindako kalte eta galeren ordainak.

- 38. artikulua. Prozedura.
- 39. artikulua. Preskripzioa

Xedapen gehigarria.- Dokumentu-funtsak Euskadiko Artxibo Historikora aldatzea.

Lehenengo xedapen iragankorra. Toki-erakundeen artxibo-zerbitzuak.

Bigarren xedapen iragankorra. Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioa.

Xedapen indargabetzailea.- Indargabetze-araubidea.

Azken xedapena.- Indarrean sartzea.

ZIOEN AZALPENA

XXI. mendean, *dokumentu* eta *artxibo* terminoek ez dute beren zentzua galdu. Alde batetik, gure memoria kolektiboa, soziala eta instituzionala eraikitzeko testigantza dira, baina, beste aldetik, gobernamendu efikazago eta demokratikoago baten euskarria ere badira.

Dokumentu eta artxiboen eremua arautzeko ahalaria dagokionez, Autonomia Estatutuaren 10.19 artikulua dio ondare historikoaren eskumena Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eksklusiboa dela, eta hortxe sartzetik da dokumentu-ondarea. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egitekoa da, beraz, Euskadiko dokumentu-ondarea babestea, edonork dela ere haren titularra, pertsona fisikoa edo juridikoa.

Gainera, estatutu horretako 10.20 artikulua dioenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eskumen eksklusiboa da Estatuaren titulartasuna ez duten artxiboen eremua, hargatik galerazi gabe haien kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko aukera, halaxe gertatu baitzen Transferentzien Bitariko Batzordearen 2011ko Erabakian eta, geroago, Estatu Administrazio Orokorren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren artean 2012an sinatutako hitzarmenean.

Beste alde batetik, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeek eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeek arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak –ezagunagoa dena "Lurralde Historikoen Legea" izenez–, 7. artikuluan dioenez, Lurralde Historikoei dute beren titulartasuneko artxiboen gaineko eskumen eksklusiboa; beraz, errespetatu egin behar dira foru-artxiboen gaineko autoeraketa-ahalak. Lege horrek, gainera, Lurralde Historikoei esleitzen die ondare historiko-artistikoa, monumentala eta arkeologikoa kontserbatu, hobetu eta berrizatzeko lanetan erakunde komunitatetik sortutako arauak garatu eta betetzeko eskumena.

Tokiko Administrazioak, azkenik, bere tokiko araudian, esleituak dituzten dokumentuak eta espedienteak zaintzeko, ordenatzeko, sailkatzeko eta katalogatzeko ahalak, eta horrek, praktikan, artxibo-zerbitzu batez hornitzeko ahala eta beharrezakoa dakar.

1990eko Euskal Kultura Ondarearen Legeak lehenengo aldiz arautu zituen dokumentu-ondarearen eta Euskadiko artxiboen oinarritzeko alderdi batzuk, zeinak geroago 232/2000 Dekretuaren bidez garatu baitziren (Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituen Dekretua).

Erregulazio-arau horiek lege-testuinguru zabalago batean txertatu behar dira; alegia, beren-beregi erregulazio artxibistiko hutsa izan gabe ere, eremu horretan eragin argi bat duten xedapenak besarkatuta. Horien artean, azpimarratzekoak dira: 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, dokumentu eta artxibo elektronikoen erregulazioari dagokionez; 15/1999 Legea, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, dokumentuetan dagoen informazio pertsonala eskuratzeko mugei dagokienez, eta 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoari

eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, herritarrek administrazio publikoetako artxiboetara irispidea izateko duten eskubideari dagokionez.

Artxiboen funtzioa aldatuz joan da denboraren poderioz. Gaur arte, memoria kolektiboaren testigantza ematen duten dokumentuan kultur gordailutzat hartu izan dira. Gaur egun, ordea, horretaz gainera nabarmentzen da artxiboek duten funtsezko zeregina erakundeen edozein informazio –batez ere erakunde publikoena– kudeatzeko orduan, dokumentuen kudeaketa ezinbesteko baldintza baita herritarrentzako zerbitzu-prestazioaren kalitatea bermatzeko, eskubideak segurtatzeko, eta gizarte demokratiko batek berezkoak dituen gardentasun-baldintzak betetzeko.

Azken hamarkadotan, administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzuen eskaintza handitu denez, eta horrek dokumentuen ekoizpena ere handitzea ekarri duenez, eta horri informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera gehitu behar zaionez, soluziobide berriak bilatu behar izan dira, nahitaez, dokumentuak kudeatzeko prozesuan. Hori dela eta, gero eta garrantzi handiagoa hartu dute dokumentuen ebaluazioak eta hautaketak, balio iraunkorra duten dokumentuen –alegia, dokumentu-ondarearen– kontserbazioa eta irispidea modu eraginkorrago eta efizienteago batez segurtatzeko estrategia gisa.

Aldaketa-testuinguru honetan, beharrezkoa da dokumentu eta artxiboei buruzko lege espezifiko bat edukitzea, dokumentu-ondarearekin eta artxiboekin zerikusia duten gaien era osoago eta koherenteago batez ekiteko. Horretarako, lege honek erreferentzia-esparru komun bat ezartzen du, Euskadiko dokumentu-ondarea modu efizienteago batez kontserbatu ahal izateko eta irispidean eskuragarriago jartzeko, Euskadiko Artxibo Sistema artikulatuago baten bitartez.

Lege-testuak bost titulu ditu: Atariko Titulua eta beste lau titulu. Atariko Tituluak Legearen xedea eta aplikazio-eremua zedarritzen ditu; dokumentu eta artxiboen kudeaketari buruzko kontzeptu espezifikoak definitzen ditu; alor honetan inplikaturik dauden eragileen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazio eta lankidetzaren printzipioak ezartzen ditu, eta sustapen-politikak agintzen ditu.

Lehenengo tituluak lau kapitulu ditu, eta bertan Euskadiko dokumentu-ondarea arautzen da. Lehenengo kapituluak dokumentu-ondarea zer den eta zerk osatzen duen definitzen du. Bigarren kapituluak dokumentu-ondarea duen dokumentu-ondarea arautzen du; haren ezaugarriak identifikatzen ditu; dokumentu elektronikoen alderdi espezifikoak azaltzen ditu, bai eta titularren betebeharrak ere, eta, gainera, bai administrazioen eta kargu publikoen arteko eskualdatzeak bai entitate publikoen pribatizazioak egitean erabili beharreko irizpideak adierazten ditu. Hirugarren kapituluak titulartasun pribatuko dokumentu-ondarea arautzen du: dokumentu-ondare deklaratzeko prozedura; titularren betebeharrak; ondare hori osatzen duten balio iraunkorreko dokumentuen eskualdatzerik dagoen edo egin den informatzeko betebeharra, eta lehenengoz erosteko eskubidea eta atzera erosteko eskubidea egikaritzea. Laugarren kapituluak dokumentu-ondarea ezagutzeko eta ezagutarazteko beharrezkoak diren bi tresna arautzen ditu: Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioa eta Artxiboen Errolda.

Bigarren tituluak Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo-zerbitzuen definizioa, funtzionamendua eta koordinazioa azaltzen ditu, Euskadiko Artxiboen Sistemaren formulapean antolatuta. Hiru kapitulu ditu. Lehenengo kapituluak Euskadiko Artxiboen Sistema eta beraren organoak definitzen ditu. Bigarren kapituluak Euskadiko Artxiboen

Sistema osatzen duten artxihoak zerrendatzen ditu, haien betebeharrak arautzen ditu eta dokumentuen kudeaketari buruzko alderdi azpimarragarrienak azaltzen ditu. Hirugarren kapituluak Euskadiko Artxibo Historikoa sortzen du, eta haren funtzioak finkatzen ditu.

Hirugarren tituluak herritarrek dokumentuetara irispidea izateko duten eskubidea arautzen du, alor horretan aplikagarria den oinarrizko araudiarekin bat, hau da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearekin bat. Dokumentuetarako irispidea partziala ere arautzen du.

Laugarren tituluak zehapen-araubidea ezartzen du, bi kapitulutan banatuta: arau-haustekak, lehenengoan, eta Legeak ezarritako betebeharrak urratzeagatik zehapenak, bigarreanean. Lehenengo kapituluan, arau-haustea zer den definitzen da, eta arau-hauste motak deskribatzen dira. Bigarreanean, zehapen-mailak arautzen dira, zehapen-prozedura, preskripzio-epreak eta kalteak eta galerak konpontzeko betebeharra.

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Lege honen xedea da arautzea Euskadiko dokumentu-ondarearen babesa, kontserbazioa eta zabalkundea; Euskadiko Artxiboaren Sistemaren antolamendua, osaera eta dokumentu-kudeaketa, eta herritarren irispidea dokumentuetara.

2. artikulua. Definizioak.

Lege honetan esaten direnetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

- a) Dokumentua: egituratuta eta testuinguru jakin batean kokatuta dagoen informazio oro, forma eta ezaugarri fisikoak dituenak dituela, pertsona fisiko eta juridiko batek bere jardueren barruan jaso, sortu edo kontserbatzen duena.
- b) Artxibo-funtsa: pertsona fisiko edo juridiko batek bere jarduera eta eginkizunen barruan bildutako dokumentuen multzoa, modu antolatuan kontserbatua.
- c) Dokumentu-kudeaketa: dokumentuen bizi-zikloan aplikatzen diren atazen multzoa, dokumentuak sortzea, identifikatzea, antolatzea, ebaluatzea, zaintzea, irispidean jartzea eta zabaltzea helburu dutenak.
- d) Ebaluazioa: zein dokumentu kontserbatu eta zein suntsitu behar diren erabakitzeko prozedura, dokumentuek duten informazioaren eta sortzen dituzten ondorioen arabera.
- e) Kontserbazio-egutegia: dokumentuak kudeatzeko tresna honen bidez, dokumentu-segidak direla eta, erabakitzen da zein kontserbatuko diren oso-osorik, zein suntsituko diren partez edo osorik, zein epetan eta zein irizpideren arabera.

f) Dokumentu-segida: administrazio publikoko artxiboen esparruan, administrazio-eginkizun edo -jarduera bat gauzatzean eta arau berak erregulatuta sortutako dokumentuen multzoa.

g) Artxiboa: pertsona fisiko edo juridiko baten dokumentuen kudeaketa integralaren ardura ardura duen unitatea.

3. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Lege hau honako eremu hauetan aplikatuko da:

a) Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten dokumentuetan.

b) Euskadiko Artxiboen Sistemako artxiboetan.

2. Estatuaren eta Lurralde Historikoen titulartasuna duten artxiboak aplikagarria den araudi bereziaren arabera erregulatuko dira.

4. artikulua. Koordinazioa eta lankidetzak.

1. Sektore publikoko administrazioek eta erakundeek nahitaez koordinatu behar dute elkarrekin, eta lankidetzan jardun, lege honen helburuak lortzeko; hori dela eta, bitarteko teknikoak, baliabideak eta informazioa eman behar dizkiote batak besteari.

2. Dokumentu-ondarearen eta artxiboen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak Euskadiko Artxiboen Sistemari integratutako artxiboen koordinazioa bultzatuko du, haren funtzioak hobeto garatzeko.

3. Euskadiko Artxiboen Sistemari integratutako artxiboen titularren artean parte hartzea, lankidetzak eta aholkularitza eraginkorra bideratzeko, lege honen bitartez sortzen diren lankidetzak-organoei titular horiek ordezkari egokia izango dutela bermatuko da.

4. Sektore publikoko administrazioak eta erakundeak behartuta daude pertsona eta entitate pribatuen lankidetzak bultzatzera, lege honen helburuak betetzeari begira. Pertsona fisiko eta juridiko pribatuak, orobat, behartuta daude administrazio eta erakunde publikoekin lankidetzan aritzeko, helburu horiek betetzeari begira.

5. artikulua. Sustapen-neurriak.

Dokumentu-ondarearen eta artxiboen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak beharrezkoak diren sustapen-neurriak hartuko ditu Euskadiko dokumentu-ondarea babesteko eta zabaltzeko eta, bereziki, lege honen 26.1.e) eta 26.3 artikuluetan adierazitako artxiboetarako zuzendutakoak.

I. TITULUA
Euskadiko dokumentu-ondarea.

I. KAPITULUA
Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioaren definizioa eta osaera

6. artikulua. Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioaren definizioa.

Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen dute edozein pertsona fisikorik edo juridikorik, bere eginkizun edo jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan betetzen diharduela, sortu, jaso edo kontserbatutako balio iraunkorreko dokumentuek, gaur eguneko edo etorkizuneko haien kokalekua edozein dela ere.

7. artikulua. Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioa osatzen duten dokumentuak.

1. Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen dute honako erakunde hauek beren jarduera edo eginkizunak betetzen ari direla sortu, bildu edo kontserbatu dituzten berrogeita hamar urteko edo hortik gorako dokumentuek:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa.
- b) Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusiak, Arartekoa eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- c) Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak eta haien sektore publikoa.
- e) Lurralde Historikoetako administrazioak eta haien sektore publikoa.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden Estatuaren administrazioa eta sektore publikoa.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden Justizia Administrazioaren organoak.
- h) Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu publikoen emakidadun diren erakunde pribatuak, emakida horiei dagokienez.
- i) Euskal Autonomia Erkidegoan funtzio publikoak betetzen dituzten pertsona eta entitate pribatuak, funtzio horiei dagokienez.
- j) Aurreko ataletan aipatu ez den eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen beste edozein erakunde publiko edo haren mendeko.

2. Euskadiko dokumentu-ondarearen barruan daude, halaber, aurreko 7.1 artikuluan zerrendaturik dauden dokumentuak, nahiz eta berrogei urtetik beherakoak izan,

Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordeak hautatzen baditu lege honen 24. artikuluan esleitzen zaizkion funtzioetan jardunda.

3. Orobat, Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen dute pertsona fisiko eta juridiko pribatuek beren jarduera edo eginkizunak betetzen ari direla sortu, bildu edo kontserbatu dituzten berrogeita hamar urteko edo hortik gorako balio iraunkorreko dokumentuek.

4. Euskadiko dokumentu-ondarearen barruan daude, baita ere, aurreko 7.3 artikuluan zerrendaturiko erakundeen dokumentuak, nahiz eta berrogei urtetik beherakoak izan, lege honen 14. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

II. KAPITULUA

Titulartasun publikoko dokumentu-ondarea

8. artikulua. Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten titulartasun publikoko dokumentuak.

1. Lege honen ondorioetarako, titulartasun publikoko dokumentutzat hartzen dira honako erakunde hauek beren eginkizunak betetzean sortu, jaso edo kudeatzen dituzten dokumentuak:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa.
- b) Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusiak, Arartekoa eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- c) Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak eta haien sektore publikoa.
- e) Lurralde Historikoetako administrazioak eta haien sektore publikoa.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden Estatuaren administrazioa eta sektore publikoa.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden Justizia Administrazioaren organoak.
- h) Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu publikoen emakidadun diren erakunde pribatuak, emakida horiei dagokienez.
- i) Euskal Autonomia Erkidegoan funtzio publikoak betetzen dituzten pertsona eta entitate pribatuak, funtzio horiei dagokienez.
- j) Aurreko ataletan aipatu ez den eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen beste edozein erakunde publiko edo haren mendeko.

2. Gainera, artxibo publikoetan sartuta dauden dokumentuak eta artxibo-funtsak ere publikotzat joko dira.

9. artikulua. Titulartasun publikoko dokumentuen ezaugarriak.

1. Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten titulartasun publikoko dokumentuak besterenezinak, preskribaezinak eta enbargaezinak dira.

2. Nahitaez bermatu behar da titulartasun publikoko dokumentuen benetakotasuna eta osotasuna haien bizi-ziklo osoan zehar, edozein dela ere haien euskarria. Horretarako, dokumentuak sortzeko, jasotzeko, eskualdatzeko, testuinguruan jartzeko, mantentzeko, kontserbatzeko eta irispidean jartzeko politikak eta prozedurak ezarri beharko dituzte haien titularrek, halako moldez non ziurtatuta geratu behar baita dokumentuak sortzen dituztenek beharrezkoa den baimena dutela eta identifikaturik daudela, eta dokumentuak babesturik daudela baimenik gabe ezer ez gehitzeko, ezabatzeko, aldatzeko edo ezkutatzeko.

10. artikulua. Titulartasun publikoko dokumentu elektronikoak.

1. Titulartasun publikoko dokumentu elektronikoak, sortzen diren unetik beretik, dokumentu elektroniko gisa kontserbatu beharko dira, eta baloraziorako, aukeraketarako, kontserbaziorako eta irispidean jartzeko metadatuak izan behar dituzte, kontserbatzeko egutegiekin bat etorritik. Gainera, hala badagokio, sinadura elektronikoak izango dituzte.

2. Eginkizun horiek benetan gauzatzeko, behar diren antolaketa-neurriak eta neurri teknikoak ezarriko dira, produkzio administratiboko sistema eta plataformak artxibo-sistemakoekin behar bezala integratzeko eta, horrela, elkarreragingarritasuna bermatzeko, dokumentu elektronikoak bizirik dauden artean berreskuratu eta kontserbatzeari dagokionez.

3. Hori dela eta, lege honen bidez arautzen diren administrazio eta erakunde publikoak behartuta daude elkarreragingarritasuna bermatuko duten indarreko arau teknikoak ezartzera eta dokumentu elektronikoaren biltegi bat izatera, zeinean espediente elektronikoak, haien dokumentuak eta aurkibideak jasoko diren, unean uneko kontserbazio-egutegiaren arabera.

11. artikulua. Titulartasun publikoko dokumentuen titularren betebeharrak.

Dokumentu publikoen titularrek honako betebeharrak hauek dituzte:

a) Dokumentuak ebaluatzeko eta hautatzeko arauak aplikatzea, lege honetan eta legea garatzen duten xedapenetan ezarritakoari jarraituz.

b) Dokumentuetarako irispidea bermatzea, lege honetan eta legea garatzen duten xedapenetan ezarritakoari jarraituz.

c) Dokumentu-ondarearen eta artxiboen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak indarreko legedia betetzen dela egiaztatzeko eska diezaiokeen informaziorako irispidea eskuratzea.

d) Lege hau garatzeko ezartzen den beste edozein betebeharrak.

12. artikulua. Eginkizunak eskualdatzea administrazioen eta kargu publikoen artean.

1. Erakunde publikoen artean eginkizunak eskualdatuz gero, haien dokumentuak eginkizunak bereganatzen dituen administrazio publikoko artxibo-zerbitzuaren esku geratuko dira. Dokumentuen eskualdatzea akta baten bidez formalizatu beharko da.

2. Baten batek kargu publikoa betetzen zuelarik sortu edo jaso dituen 8. artikuluko dokumentuak ez badaude behar zuen artxiboan pertsona hark kargua uztean, karguan ondorengo denari entregatu beharko zaizkio, edo dagokion administrazio edo erakunde publikoaren artxiboan sartu.

13. artikulua. Erakunde publikoak pribatizatzea.

Erakunde batek publiko izateari uzten dionean, edo beste erakunde publiko batekiko mendekotasuna galtzen duenean, aldaketa horren aurreko dokumentuek titulartasun publikokoak izaten jarraitzen dute eta hasieran zuten mendekotasun horren arabera dagokion organo administratiboan gordailatu behar dira.

III. KAPITULUA

Titulartasun pribatuko dokumentu-ondarea

14. artikulua. Titulartasun pribatuko dokumentuak Euskadiko dokumentu-ondare deklaratzeko.

1. Dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saila izango da lege honetako 7.4 artikulua aipatzen dituen titulartasun pribatuko dokumentuak Euskadiko dokumentu-ondare deklaratzeko espedienteak hasteko organo eskuduna.

2. Deklarazio-espediente administratiboa ofizioz has daiteke, edo baita interesdunaren eskariz ere.

3. Organo eskudunak hiru hileko epean eman beharko dio ebazpena egindako hasiera-eskaerari eta hura jakinarazi, aurkezten denetik zenbatuta. Epe hori igaro eta hasteko esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

4. Deklarazio-espedientearen, entzunaldia emango zaio lurraldean lurraldeko foru-aldundiari eta, halaber, jendaurreko informazioaldian jarriko da. Gainera, Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordeak espedientearen aldeko txostena eman beharko du.

5. Hasiara Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta sei hilabetera, gehienez, ebatzi eta jakinaraziko da deklarazio-erabakia.

6. Dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuari dagokio titulartasun pribatuko dokumentuak Euskadiko dokumentu-ondare deklaratzeko agindua ematea. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

7. Deklarazioak honako hauek jasoko ditu, gutxienez: babesten diren dokumentu eta artxibo-funtsen identifikazioa, deskribapena eta kokapena.

15. artikulua. Euskadiko dokumentu-ondarearen titular pribatuen betebeharrak.

Honako hauek dira Euskadiko dokumentu-ondarearen titular pribatuen betebeharrak:

a) Dokumentu-ondarea kontserbatzeko eta ordenatuta eta inbentariatuta izateko behar diren bitartekoak eskura izatea.

b) Ondarea osorik kontserbatzea eta funtsak ez zatitzea, dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren baimenik gabe.

c) Dokumentuen kontsulta eta zabalkundea baimentzea, lege ezarritako eran.

d) Dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saila jakitun ipintzea, alde z aurretik, dokumentuen kokagunean, titulartasunean edo jabetzan aldaketarik izanez gero.

e) Dokumenturik ez suntsitzea, alde z aurretik Dokumentazioa ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordeak baimenik eman ezean.

f) Lege honetan ezarritako eginbeharrak betetzeko egiten diren ikuskapen lanak erraztea.

16. artikulua. Informazioa emateko betebeharra.

1. Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten dokumentuen jabe, horien eskubideen titular edo edukitzaile diren pertsona fisiko edo juridiko guztiek nahitaez eman behar dute organo eskudunak dokumentu horien inguruan eskatzen dien informazioa.

2. Dokumentu horien edozein eskualdaketa eginez gero, dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saila jakitun ipini behar dute, bi hilabete aurretik gutxienez, eta eskualdatzea zer preziotan eta baldintzatan egingo den azalduta. Dokumentuok kostu bidez besterenduz gero, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatu ahal izango da, lege honen 17. artikuluan ezarritako eran.

17. artikulua. Lehentasunez erosteko eskubidea eta atzera erosteko eskubidea.

1. Dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak lehenbailehen jakinarazi beharko die lege honen 16.2 artikuluan aurreikusitako komunikazioa Artxiboen Sistema osatzen duten organo eta artxiboei.

2. Aurreko zenbakian adierazitako komunikazioa jaso eta bi hileko epean, dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak lehentasunez erosteko eskubidea baliatu ahal izango du, beretzat edo Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duen beste artxiboren batentzat, Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten titulartasun pribatuko dokumentu eta artxibo-funtsen kostu bidezko "inter vivos" eskualdatzeetan.

3. Sei hileko epean baliatu ahal izango du atzera erosteko eskubidea, eskualdaketa benetan egin dela frogagiri bidez jakiten denetik kontatuta, honako kasu hauetako bat gertatzen bada:

a) Besterentzea aldez aurretik Eusko Jaurlaritzari jakinarazi ez bazaio, lege honen 16. artikuluan xedatu bezala.

b) Eskualdaketa ez bada egin aldez aurretiko jakinarazpenean adierazitako baldintzetan.

4. Lehentasunez erosteko eta atzera erosteko eskubidean pertsona bat baino gehiago badira interesdunak, dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak erabakiko du zein artxibo den egokiena eskubide hori egikaritzeko.

IV. KAPITULUA

Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioa eta Artxiboen Errolda

18. artikulua. Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioa.

1. Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioa sortzen da, Euskadiko dokumentu-ondare izendatu diren artxibo-funtsak eta dokumentuak identifikatzen dituen administrazio-tresna gisa.

2. Dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioa kudeatzea.

3. Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioaren irispidea publikoa izango da.

19. artikulua. Euskadiko Artxiboen Errolda

1. Euskadiko Artxiboen Errolda Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten dokumentuak zaintzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko artxiboak identifikatzeko tresna da.

2. Euskadiko Artxiboen Erroldak aurreko paragrafoan aipaturiko artxibo guztien oinarrizko datuak ezagutzeko bidea ematen duen informazioa jasoko du, Euskadiko dokumentu-ondarearen kudeaketa ebaluatu eta hobetzeko.

3. Dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio Euskadiko Artxiboen Errolda egitea, eguneratzea eta jendartean zabaltzea.

4. Lege honen 19.1 artikuluan aipatzen diren artxiboetako titular diren pertsona fisiko eta juridiko guztiak behartuta daude Euskadiko Artxiboen Errolda egiteko eta eguneratzeko lanetan lankidetzara ematera.

II. TITULUA

Euskadiko Artxiboen Sistema eta dokumentu-kudeaketa

I. KAPITULUA

Definizioa eta organoak

20. artikulua. Euskadiko Artxiboen Sistemaren definizioa.

Euskadiko Artxiboen Sistema lege honen 21. artikuluan araututako organoek eta 26. artikuluan zerrendaturiko artxiboek osatzen duten administrazio-egitura da, eginkizun nagusia dokumentu-ondarearen eta artxiboen politikari buruzko ildo nagusiak ematea duena, aldi berean artxibo horien parte hartzea sustatuz, dokumentuen kudeaketa eraginkorrago eta efizienteago bat izateko eta herritarrek dokumentuetara irispidea izan dezaten bermatzeko.

21. artikulua. Organoak.

Honako hauek dira Euskadiko Artxiboen Sistemaren organoak:

- a) Euskadiko Artxiboen Sistemaren Zuzendaritza.
- b) Euskadiko Artxiboen Kontseilua.
- c) Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordea.
- d) Euskadiko Artxiboen Sistemaren Zuzendaritzako organo kudeatzailea.

22. artikulua. Euskadiko Artxiboen Sistemaren Zuzendaritza.

1. Dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren ardura da dokumentu-ondarearen eta artxiboen politikari buruzko ildo nagusiak ematea.

2. Euskadiko Artxiboen Sistemaren zuzendaritza-organo gisa, honako eginkizun hauek ditu:

- a) Lege honetan jasotakoa aplikatzearen ondorioz eman beharreko arauzko garapenak eta teknikoak lantzea.
- b) Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten artxiboek behar izanez gero, laguntza tekniko eta ekonomikoa ematea.
- c) Euskadiko Artxiboen Sistemari sartuta ez dauden artxiboak bertan sartzeko erabakiak eta hitzarmenak hartzea.
- d) Euskadiko dokumentu-ondare deklarazioa titulartasun pribatuko dokumentu edo artxibo-funtsak, aldezturik Euskadiko Artxiboen Kontseiluak irizpena emanda, eta Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioa kudeatzea.
- e) Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten artxiboak ikuskatzea.
- f) Euskadiko Artxiboen Errolda kudeatzea eta haren mantentze-lanak egitea, eta herritarren zerbitzura jartzea.
- g) Dituen eskumenak gauzatzeko beharrezkoak diren bestelako eginkizunak.

23. artikulua. Euskadiko Artxiboen Kontseilua

1. Euskadiko Artxiboen Kontseilua Euskadiko Artxiboen Sistemaren partaidetzarako eta aholkularitzarako kide anitzeko organoa.
2. Euskadiko Artxiboen Kontseilua dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikitzen zaio, eta beraren osaera eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira.
3. Honako hauek dira Euskadiko Artxiboen Kontseiluaren eginkizunak:
 - a) Nahitaezko txostena ematea, dokumentu-ondarearen eta artxiboen alorreko xedapen orokorren proiektuen gainean.
 - b) Aldezturik txostenak ematea, Euskadiko Artxiboen Sistemari artxibo pribatuak sartu behar direnean.
 - c) Artxiboen kudeaketa hobetzeko proposamenak egitea.
 - d) Dokumentu-ondarearen eta artxiboen alorrean txostenak lantzea.
 - e) Erregelamendu bidez zehazten den beste edozein eginkizun.

24. artikulua. Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordea.

1. Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordea da Euskadiko Artxiboen Sistemari zaintzen diren dokumentuak ebaluatu eta haiek irispidean jartzeko araubidea aplikatzen duen kide anitzeko organo teknikoa. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan diharduten dokumentu sektorialak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko batzordeekin elkarlanean jardungo du.

2. Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordea dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikitzen zaio, eta Batzordearen osaera eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira.

3. Honako hauek dira Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordearen eginkizunak:

3.1 Dokumentuak ebaluatzeari dagokionez:

a) Dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko beren batzorde propioak ez duten erakundeek sortutako dokumentuen tipologia eta dokumentu-segidak ebaluatzea.

b) Dokumentuak kontserbatzeko egutegiak egitea eta eguneratuta gordetzea; egutegi horietan, dokumentuetara irispidea izateko berariazko irizpideak jasoko dira. Era berean, irizpide horiek ondo aplikatzen diren ikuskatuko du. Euskadiko dokumentu-ondarean sar daitezkeen dokumentuak ezingo dira suntsitu, harik eta kasuan kasuko kontserbazio-egutegia onartu arte.

c) Erakunde publikoen eginkizun eta jarduera erabakigarrien ondoriozko funtsezko dokumentuak zein diren zehaztea. Dokumentu horiek Dokumentuak larrialdietatik eta hondamendietatik berreskuratzeko Prebentzio Planaren osagai izango dira.

d) Hiru hileko epean nahitaezko txostenak ematea Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten erakundeetan eginkizun horiek betetzen dituzten batzordeek –edo, batzorderik egon ezean, beste erakunde batzuek– emandako ebaluazio-proposamenen eta kontserbazio-egutegien gainean.

e) Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten erakundeetan eginkizun horiek betetzen dituzten batzordeek –edo, batzorderik egon ezean, beste erakunde batzuek– eman beharreko irizpide orokorrak ezartzea.

f) Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten artxiboei aholkularitza ematea, dokumentuak ebaluatzeari, hautatzeari eta irispidean jartzeari dagokienez.

g) Aldez aurreko txostenak ematea, Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioan dokumentu eta artxibo-funtsak sartu behar direnean edo Inbentariotik atera behar direnean.

3.2 Dokumentuen irispideari dagokionez:

- a) Dokumentuak eskuratzeko araubidea proposatzea, lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutakoari jarraituz, eta eskubide hori ahalik eta egokien aplikatzen dela zaintzea.
 - b) Euskadiko Artxiboen Sistemaren artxiboetan zaintzen diren dokumentuak irispidean jartzeko jarraibideak bateratzea.
 - c) Txostena ematea, dokumentuak eskuratzeko beren eskubidea urratu dela deritzoten pertsona publiko eta pribatuen erreklamazio eta errekursoetan.
4. Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordean Euskadiko Artxiboen Sistemako artxiboak ordezkatzeko dituzten profesionalak egon behar dute, bai eta dokumentuen kudeaketaren alorrean aitortutako prestigioa duten profesionalak ere.

25. artikulua. Kudeaketa-organoa.

Euskadiko Artxibo Historikoa da Euskadiko Artxiboen Sistemaren Zuzendaritzari esleitutako eskumenak inplementatzen eta kudeatzen dituen organoa, lege honen II. tituluko III. kapituluan xedatutakoaren arabera, bertan arautzen baitira artxibo horren sorrera eta funtzioak.

II. KAPITULUA Sistemako Artxiboak

26. artikulua. Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten artxiboak.

1. Honako hauek osatzen dute Euskadiko Artxiboen Sistema:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko artxiboak.
- b) Eusko Legebiltzarreko artxiboak, Ararteko erakundeak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegikoak.
- c) EHU Euskal Herriko Unibertsitateko artxiboa.
- d) Estatuaren titulartasuna izan arren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatua duten Artxibo Historiko Probintzialak eta Justizia Administrazioak.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako eta haien mendeko entitate eta erakundeetako artxiboak.

2. Lurralde Historikoetako artxiboak ere sartu ahal izango dira Euskadiko Artxiboen Sistemari, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden nazioarteko titulartasuna duten beste erakunde edo entitate publikoetako artxiboak ere.

3. Sorkuntza artistikoari loturiko erakundeetako artxiboak edo titulartasun pribatua duen beste edozein artxibo ere sartu ahal izango dira Euskadiko Artxiboen Sistemari, Euskadiko Artxiboen Kontseiluak alde aurretik horren aldeko txostena ematen badu.

4. Lege honen 26.2 eta 26.3 artikuluetan aipatzen diren artxibo publiko eta pribatuak Euskadiko Artxiboen Sistemari sartzeko, haien titularrek egin behar dute eskabidea, tresna juridiko egokiaren bitartez eta betiere errespetatuta beraien izaera eta funtzionamendua eratzen duten legezko arauak.

27. artikulua. Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten artxiboen titularren betebeharrak.

Honako hauek dira Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten artxiboen titularren betebeharrak:

a) Zaintzen dituzten artxibo-funtsetako dokumentuak bildu, kontserbatu, antolatu, kudeatu, deskribatu eta haien zabalkundea egitea, beren eskumenen eta araudi propioaren esparruan eta lege honetan eta legea garatzeko arauetan ezarritakoari jarraituz.

b) Artxibo-funtsak egoki jarrita daudela eta behar bezala funtzionatzen dutela segurtatzea, bai eta beren funtzioak betetzeko behar dituzten materialez ongi hornituta daudela segurtatzea ere.

c) Lege honetan eta legea garatzen duten arauetan ezartzen diren baldintza teknikoak betetzen direla segurtatzea.

d) Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordeak onarturiko balorazio- eta irispide-arauak aplikatzen direla segurtatzea, eta haien publikitatea ere bai.

e) Euskadiko dokumentu-ondarean sar daitezkeen dokumentuak ez direla suntsitzen zaintzea, lege honen 24. artikuluan xedatutakoa betez.

f) Artxibo-zerbitzuaren beharrezan betetzeko teknikari espezializatu nahikoak izatea eta lege honetan agindutakoa betetzea.

28. artikulua. Dokumentuen kudeaketa.

Euskadiko Artxiboen Sistemari integratutako titulartasun publikoko artxiboek dokumentuak kudeatzeko sistema bat eduki behar dute, behar besteko teknikalari hornitua eta honako eginbeharrak beteko dituenak:

a) Dokumentuen bizialdia kudeatzea, haien diseinuan, sorkuntzan, eskualdatzean, ebaluazioan eta, hala badagokio, behin betiko suntsitzen edo kontserbatzen direnean.

b) Dokumentu eta espediente elektronikoek zein metadatu eduki behar dituzten finkatzea, eta metadatu horiek denboran zehar nola kudeatuko diren eta lotuko diren zehaztea.

- c) Administrazio-prozeduretan dokumentuak berreskuratzeko, erabiltzeko eta eskualdatzeko baldintzak zein izango diren finkatzea, bai administrazioari begira, bai herritarrei begira.
- d) Dokumentuak nola antolatu behar diren finkatzea, dokumentuok erabiltzeko behar diren baldintzak betez.
- e) Dokumentuak kontserbatzea eta denboran zehar irispidean jartzea, hartara haien titularraren eta herritarren beharrezanean erantzuteko.
- f) Dokumentuak ingurune seguruan kontserbatzen direla bermatzea.
- g) Behin betiko baliorik ez duten dokumentuen identifikazioa, ebaluazioa, hautaketa eta suntsiketa bermatzea eta, beraz, balio iraunkorra dutenak zehaztea eta dokumentu-ondareztat tratatzea.

29. artikulua. Dokumentuak ebaluatzea eta hautatzea.

1. Dokumentuak dokumentu-segiden arabera ebaluatu beharko dira, eskualdatzeko, kontserbatzeko edo suntsitzeko epeak zehaztuz eta haietara iristeko baldintzak ezarritik. Ebaluatze epeak eta prozesua erregelamenduz garatuko dira.
2. Horretarako, Euskadiko Artxiboen Sistemako erakunde publiko eta pribatu bakoitzak dokumentazioa ebaluatze, hautatze eta eskuratzeko bere batzorde propioa izan behar du, alor horretako diziplinarteko kide anitzeko organo gisa. Ebaluazio-batzorde horiek Euskadiko dokumentuak ebaluatze, hautatze eta eskuratzeko Batzordearen aginduzko txostena lortu beharko dute, alde aurretik, beren proposamenak egiteko. Txosten hori loteslea izango da.
3. Dokumentuak ebaluatze, hautatze eta eskuratzeko batzorde propioak ez duten erakundeek Euskadiko dokumentuak ebaluatze, hautatze eta eskuratzeko Batzordeak dokumentazioa kontserbatzeko onartutako egutegiak aplikatu beharko dituzte. Kontserbazio-egutegirik onartuta ez duten dokumentu-segiden kasuan, aipaturiko Euskadiko Batzordeari aurkeztu ahal izango dizkiote erakunde horiek beren ebaluazio eta hautaketarako proposamenak.
4. Euskadiko dokumentuak ebaluatze, hautatze eta eskuratzeko Batzordeak hiru hilabete izango ditu eskatzen dizkieten txostenak emateko eta haien berri jakinarazteko. Epe hori igaro eta txostenaren berri ematen ez bada, aldeko irizpena eman duela ulertuko da.

III. KAPITULUA
Euskadiko Artxibo Historikoa

30. artikulua. Sorrera.

1. Euskadiko Artxibo Historikoa sortzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren dokumentu-ondarea eta, hala badagokio, lege honen 7. artikuluan zerrendatutako dokumentu-ondarea gordailatzeko, kontsultatzeko, ikertzeko eta zabaltzeko zentro gisa, behin ondare horren titularrekin beharrezkoak diren hitzarmenak sinatu ondoren.

2. Bere jarduna garatzeko behar dituen giza-baliabideak, baliabide materialak eta aurrekontuzkoak izango ditu Euskadiko Artxibo Historikoak.

3. Euskadiko Artxibo Historikoa dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikitako zerbitzua da, eta Euskadiko Artxiboen Sistemaren organoburu gisa jardungo du.

31. artikulua. Eginkizunak.

Honako hauek dira Euskadiko Artxibo Historikoaren eginkizunak:

a) Lege honen 30.1 artikuluan adierazitako Euskadiko dokumentu-ondarea edozein euskarritan biltzea, kontserbatzea, antolatzea eta haren zabalkundea egitea.

b) Dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari lege honetan esleitzen zaizkion eskumenak abiaraztea eta kudeatzea.

c) Prestakuntza, jakintza, ikerketa eta berrikuntza bultzatzea, Euskadiko artxibo-zerbitzuak hobetzeari begira.

d) Euskadiko Artxiboen Sistemaren web-ataria kudeatzea eta haren mantentze-lanak egitea, eta bertako edukiak koordinatzea Euskadiko Kultur Ondarearen irispide eta zabalkunderako plataforma komunekin.

e) Dokumentuak euskarri alternatiboetan erreproduzitzeko programak prestatzea eta aplikatzea, dokumentu jatorrizkoak kontserbatzeko eta haien zabalkundea egiteko.

f) Herritarrei begira, artxiboen eta dokumentu-ondarearen kultur zabalkunderako programak eta haiei balioa emateko programak sustatzea.

g) Artxibo eta dokumentu-ondarearen alorreko politikak zer nolako eboluzioa duten, erregelamenduz esleitzen zaizkion bestelako eginkizunak.

III. TITULUA

Irispidea

32. artikulua. Dokumentuak irispidean izateko eskubidea.

1. Titulartasun publikoko dokumentuak irispidean jartzeko, arlo honetan aplikagarriak diren Estatuko eta Erkidegoko arauak erabiliko dira, bai eta lege honetan xedatutakoa ere. Hori dela eta, Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordeak irispidean alorrean indarrean dagoen legedia aplikatzen dela zainduko du.

2. Pertsona orok izango du eskubidea Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten dokumentuetara irispidea izateko, bai eta kopiak eskuratzeko ere, kasuan-kasuan aplikagarria den legediaren arabera eta edozein dela ere dokumentuen titularra. Eskubide hori bermatzeko, informazio eta deskribapenari buruzko tresna artxibistikoak eskainiko ditu artxibo bakoitzak, eta aholkularitza emango die erabiltzaileei dokumentuotako edukietan bilaketak egiteko. Artxibo batean gordailatuta ez dauden baina Euskadiko dokumentu-ondarearen parte diren dokumentuen titularrek dokumentu horiek irispidean jartzeko eta zabaltzeko eginbeharra dute, lege honen I. tituluan araututako betebeharrek agintzen dutenari jarraituz.

3. Berrogei urtetik gora duten dokumentuen kasuan, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen mugetan oinarrituta dokumentuetarako irispidea ukatu nahi bada, Euskadiko dokumentuak ebaluatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko Batzordearen txosten loteslea beharko da, zeinean irispidea eragozteko erabiltzen diren arrazioen indarraldia ebaluatuko den.

4. Dokumentuen kontserbazio-egoera dela eta, aldi baterako mugatu ahal izango da dokumentuetarako irispidea.

33. artikulua. Dokumentuetarako irispidea partziala.

1. Administrazioak baimena eman behar du indarreko legearen arabera isilpean gorde beharreko datuak dituzten dokumentuen zati batera irispidea izateko, baldin eta, dokumentu horietan posible bada, prozesu tekniko batzuen bidez, datu erreserbatuetarako irispidea erabat eragotziko dela bermatzea eta emandako informaziotik abiatuta datu horiek lortzea eragotziko dela bermatzea.

2. Partez erreserbatuak diren espediente edo dokumentuen kasuan, eta teknikoki bideragarria denean, datu erreserbatuak ezabatuta dituzten dokumentuen kopiak jarriko dira irispidean, edo datu horiek bereizita emanda; alegia, identitatea babestua behar duten pertsona fisiko edo juridikoak ez ezagutzeko moduan.

IV. TITULUA **Zehapen-araubidea**

I. KAPITULUA **Arau-hausteak**

34. artikulua. Definizioa.

Lege honen 35. artikulua urratzen duten egintzak eta ez-egiteak arau-hauste administratibotzat joko dira. Dagoeneko zehapen penala edo administratiboa jaso duten egitateei ezin zaie beste zehapenik jarri, subjektua, gertakaria eta funtsa zehatutako berberak direla ikusten bada.

35. artikulua. Arau-hauste motak.

1. Honako hauek arau-hauste oso larriak izango dira:

- a) Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioko dokumentuak galtzea, desagertzea edo haietan kalte konponezinak dakartzaten egintzak edo ez-egiteak, bai eta artxiboetan eta haien instalazioetan eragindako kalteak ere.
- b) Titulartasun publikoko dokumentuak ezabatzea, baldin eta lege honetan eta legea garatzeko ematen diren arauetan ezarritako prozeduretatik kanpo ezabatzen badira.
- c) Irispidean jartzeko edo edukia zabaltzeko erreserbaren bat duten dokumentuetako informazioa argitaratzea, oker erabiltzea edo zabaltzea.
- d) Herritarrek lege honetan ezarritako baldintzetan dokumentuetarako irispidea izateko duten eskubidea gauzatzeko oztopoak jartzea.
- e) Aurreko hiru urteetan arau-hauste larri bat behin baino gehiagotan egitea, ebazpen irmoz hala egin dela adierazi bada.

2. Honako hauek arau-hauste larriak izango dira:

- a) Dokumentuak kontserbatzeari buruzko betebeharrak ez betetzea.
- b) Titulartasun publikoko dokumentuak zaintzen dituzten pertsonak, beren funtzioak betetzean zein betetzeari uzten diotenean, dokumentuok bidegabe atxikitzea eta ez eskualdatzea.
- c) Pertsona eta erakunde pribatuak titulartasun publikoko dokumentuak bidegabe atxikitzea, baita pertsona eta erakunde publikoek titulartasun pribatuko dokumentuak bidegabe atxikitzea ere.
- d) Dokumentuak sortzen dituzten erakundeek dokumentuetako datuak erabiltzeko lana oztopatzea, horrek lege honetan araututakoa urratzen baitu.
- e) Administrazioaren ikuskapen-lanak oztopatzea.
- f) Aurreko hiru urteetan arau-hauste arin bat behin baino gehiagotan egitea, ebazpen irmoz hala egin dela adierazi bada.

3. Honako hauek arau-hauste arinak izango dira:

- a) Artxiboak funtzionatzeko lankidetzak ukatzea.
- b) Ez betetzea titulartasun publikoko dokumentuak entregatzeko betebeharra, ez eta organoen arteko eskualdatzeen ondorioz edo organoak desagertzearen ondorioz eskualdatzen diren dokumentuak inbentariatzeko betebeharra ere.
- c) Ez betetzea eskualdatzeak jakinarazteko betebeharra, ez eta Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten dokumentuen edozein hondatze, galtze edo suntsiketa jakinarazteko betebeharra ere.

- d) Euskadiko Artxiboen Errolda egiteko eta, hala badagokio, eguneratzeko behar den informazioa emateko betebeharra ez betetzea.
- e) Erabiltzailearen arretarako zerbitzua asaldatzea.

II. KAPITULUA Zehapenak

36. artikulua. Zehapenak.

1. Dokumentu-ondarearen eta artxiboen alorreko zehapenak jartzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: kasuan kasuko inguruabar aringarriak edo larrigarriak; egindako kaltearen neurria, eta izandako asmoa. Isunen zenbatekoak honela banatuko dira:
 - a) Arau-hauste oso larriak: ehun mila eurotik (100.000) hirurehun mila eurora (300.000) bitarteko isuna.
 - b) Arau-hauste larriak: berrogeita hamar mila eurotik (50.000) ehun mila eurora (100.000) bitarteko isuna.
 - c) Arau-hauste arinak: berrogeita hamar mila euro (50.000) arteko isuna.
2. Ekonomikoki balioetsi daitezkeen kalte edo onurak sortzen badira, egindako kaltea halako lau izango da isuna, edo, bestela, arau-haustearen bidez lorturiko onura estaltzeko besteraino igo ahal izango da.
3. Zehapen osagarri gisa, lau urte arte eten ahal izango dira Euskadiko Artxiboen Sistemaren barruan izateak berekin dakartzan onurak.
4. Lege honen 35.1.d) eta 35.2.a) artikuluetan deskribaturiko arau-hausteen kasuetan, zigor osagarri eta kautelazko neurri gisa, dokumentazioa aldi baterako artxibo-zerbitzu publiko batean gordailatzea erabaki daiteke, harik eta zehapen nagusia egiazki ordaindu arte eta kontserbazio-betebeharrak konplitu arte.
5. Hainbat subjekturi arau-hauste bera dela-eta jarritako isunak eta zehapen osagarriak independenteak izango dira elkarren artean.
6. Gobernu Kontseiluak, dekretu bidez, lege honetan aurreikusitako zehapenen zenbatekoak eguneratu ahal izango ditu, Euskadiko Artxiboen Kontseiluak txostena egin ondoren eta KPlaren aldaketak kontuan hartuta.
7. Dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saileko dagokion organoak jarriko ditu Artxiboen Sistemaren esparruan gertatzen diren arau-hausteen kontrako zehapenak, salbu eta dokumentu-ondarearen kontserbazioarekin lotuta daudenen aurkakoak, horiek kasuan kasuko lurralde historikoko foru-aldundiak jarriko baititu.

37. artikulua. Eragindako kalte eta galeren ordainak.

1. Legez dagokion isuna jartzea alde batera utzita, Euskadiko dokumentu-ondareari edo artxiboetako instalazioei kalteak eragiten dizkieten arau-hausteeak berekin ekarriko dute, ahal den neurrian, gauzak konpontzeko eta lehen zeuden moduan uzteko betebeharra, eta betiere eragindako kalteen eta galeren ordainei aurre egin behar izatea.
2. Konpontzeko betebeharra betetzen ez bada, kalteak konpontzeko lanak modu subsidiarioan egiteko ahalmena izango du, arau-haustearen kontura, ondasun publikoen titularrak –sektore publikoko administrazio eta erakundeen kasuan–, eta dokumentu-ondare eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak –gainerako kasu guztietan–.

38. artikulua. Prozedura.

1. Ofizios emango zaio hasiera zehapen-prozedurari, Eusko Jaurlaritzak erabakita edo, hala badagokio, Foru Aldundiak erabakita, edo beste organo batzuen eskaera arrazoituari erantzunez edo salaketaren ondorioz. Edonork sala ditzake lege honetan ezarritakoaren aurkako arau-hausteeak. Salaketa aurkezte hutsarekin salatzailea ez da bihurtzen prozedurako interesdun. Baina salaketarekin batera prozedura hasteko eskaria aurkezten bada, salatzaileari prozedurari hasiera emango zaion ala ez jakinarazi beharko zaio.
2. Behin espedientea hasiz gero, dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak jarduera berehala eteteko agindua eman dezake, bai eta Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten titulartasun publikoko dokumentuetan kalterik ez sortzeko beharrezkotzat jotzen dituen behin-behineko neurriak hartu ere.
3. Zehapen-espedientea hasteko kautelazko neurriak har daitezke, hala nola dokumentuak gordailuan uztea, dokumentuak gordetzen dituen eraikina zigilatzea —osorik edo zati batean—, edo titulartasun publikoko dokumentuetan edo Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten dokumentuetan kalteak ekiditeko edo gutxitzeko beste edozein.

39. artikulua. Preskripzioa.

1. Hona noiz preskribatuko diren zehazpenak eta isunak:
 - a) Arinak, urte bat igarotakoan.
 - b) Larriak, hiru urte igarotakoan.
 - c) Oso larriak, bost urte igarotakoan.
2. Arau-hausteeak preskribatzeko epea arau-haustea egin den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen; isunen epea, berriz, isuna jartzen duen ebazpena irmo bihurtzen den

egunetik aurrera. Lege honetan ezarritako betebeharren bat behin eta berriz urratzearen ondorio diren arau-hausteetan, epea hasiko da zenbatzen jokabide arau-hausleari uzten zaion egunean.

Xedapen gehigarria.- Dokumentu-funtsak Euskadiko Artxibo Historikora aldatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Artxibo Sistemak lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epea izango du Euskadiko Artxibo Historikora lekualdatzeko bere esku dituen dokumentu eta artxibo-funts historikoak.

Lehenengo xedapen iragankorra.- Toki-erakundeen artxibo-zerbitzuak.

Euskadiko toki-administrazioetako eta haien mendeko artxibo-zerbitzuek, bai eta Euskal Herriko Unibertsitatekoek ere, legea indarrean sartzen denetik gehienez ere hiru urteko epea izango dute lege honetako eskakizun guztietara erabat egokitzeko.

Bigarren xedapen iragankorra.- Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioa.

Dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuaren agindu bidez, Euskadiko dokumentu-ondarearen Inbentarioaren publizitatea egingo da hamazortzi hilabeteko epean, lege hau indarrean sartzen denetik hasita.

Xedapen indargabetzailea.- Indargabetze-araubidea.

Berariaz indargabetuta geratzen dira Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko III. tituluko III. kapitulua eta IV. tituluko I. kapitulua, baita ere lege honetan xedatutakoa hausten duen maila bereko edo gutxiagoko xedapen oro.

Azken xedapena.- Indarrean sartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeitau egunera jarriko da indarrean.